



FIRMADO POR

Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza
-Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
04/04/2025



FIRMADO POR

El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo
Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
04/04/2025



CIF / IFK: P3113600E

EZ-OHIKO OSOKO BILKURA
SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA

Data/ Fecha: 2024-04-19

Lekua/ Lugar: Herriko Etxea/ Casa Consistorial.

Deialdia/ Convocatoria: Ez-Ohikoa/ Extraordinaria.

Ordua/ Hora: 9:30

BERTARATUAK/ ASISTEN:

- D^a Yolanda Urroz Saldias and, Herriarengatik
- D. Jesus Juan Bertiz Goñi jn, Herriarengatik
- D. Lazaro Javier Erasun Echeverria jn, Herriarengatik
- D. Jose Antonio Mindeguia Saldias jn, Herriarengatik

EZ BERTARATUAK/ NO ASISTEN:

ALKATEA (Bilkura buru)/ ALCALDE (Preside la sesión):

- D. Jon Telletxea Juanenea, Herriarengatik

Idazkaria/ Secretaria: Dña. Leire Irigorri Litago and.

1.- "ORBEL HAIZEA, S.L.U." ENPRESAK UDALBATZAK 2024KO OTSAILAREN 23AN HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA JARRITAKO BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOARI BURUZKO ERABAKIA. GAIA: UDAL ARETO ETA ERANTSITAKO KOMUNAREN LAGAPENAREN ERREBOKAZIOA,	1.- ACUERDO SOBRE EL RECURSO DE REPOSICIÓN INTERPUESTO POR LA EMPRESA "ORBEL HAIZEA, S.L.U." CONTRA ACUERDO PLENARIO DE 23 DE FEBRERO DE 2024 SOBRE REVOCACIÓN DE LA CESIÓN DE LA SALA MUNICIPAL Y BANO ANEXO EN LA CASA CONSISTORIAL POR INCUMPLIMIENTOS REPETIDOS DE
--	---



BEINTZA-LABAIEN

Código Seguro de Verificación: 7NAA AAFL NLEM 94EU TDDV

BILKURAKO AKTA/ACTA DEL PLENO 2024-04-19 - SEFYCU 57003

La comprobación de la autenticidad de este documento y otra información está disponible en <https://sedeelectronica.labaien.org/>

Pág. 1 de 22



FIRMADO POR

Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza-Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
04/04/2025



FIRMADO POR

El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
04/04/2025

LAGAPENAREN BALDINTZAK BEHIN ETA BERRIZ EZ BETETZEAGATIK, ETA GELA JANTOKIRAKO BAINO EZ ERABILTZEKO ERABILERARI AMAIERA EMATEKO HIRU HILABETEKO AURREABISUA.

I.- Beintza-Labaiengo Udalaren Osoko Bilkurak, 2024ko otsailaren 23an egindako ezohiko bilkuran, Beintzako aterpetxeko errentariak udaletxeko bigarren solairuan dagoen gela eta bainugela erabiltzeari buruzko erabakia hartu zuen. Horri, 2010eko azaroaren 19ko Erabakiaren bidez, espazio horien erabilera prekarioan lagatzea onartu zitzaion, "ORBEL HAIZEA, SLU" enpresak ustiatutako turismo-aterpetxearen jantoki osagarriaren beharrei erantzuteko. Erabaki horrek honako hau xedatu zuen:

1.- Udal-aretoaren eta ondoko bainugelaren lagapena ezeztatzea, lagapenaren baldintzak behin eta berriz ez betetzeagatik.

2.- Gela jantokirako bakarrik erabili ahal izango dela jakinaraztea; hiru hilabeteko epea 2024-05-24an amaitzen dela kontuan hartuta. Egindako giltza guztien kopiak udalean entregatu beharko dira.

II.- Osoko bilkuraren erabaki horren aurka, "ORBEL HAIZEA, SLU" enpresaren legezko ordezkariak berraztertzeke errekurtsoa aurkeztu zuen, legezko epean eta moduan, eta Udaleko kanpoko aholkulari juridikoari helarazi zitzaion, berraztertzeke errekurtso horri buruzko txosten juridikoa egin zezan.

Nagore abogados & asociados enpresak 2024ko martxoaren 25ean egindako

LAS CONDICIONES DE LA CESIÓN Y PREAVISO DE TRES MESES PARA PONER FIN A LA UTILIZACIÓN DE LA SALA EXCLUSIVAMENTE PARA USOS DE COMEDOR DURANTE ESE PLAZO.

I.- En sesión extraordinaria del Pleno del Ayuntamiento de Beintza-Labaien celebrada el 23 de febrero de 2024 se adoptó Acuerdo en relación con el uso de la sala y baño sitos en la planta segunda de la Casa Consistorial por el arrendatario del albergue de Beintza a quien se concedió la cesión en precario del uso de esos espacios por Acuerdo de 19 de noviembre de 2010, para atender a las necesidades de comedor suplementario del albergue turístico explotado por "ORBEL HAIZEA, SLU", por el cual se decretó:

1.- Revocar la cesión de la sala municipal, así como el baño anexo, por incumplimientos repetidos de las condiciones de la cesión.

2.- Notificar que podrá seguir haciéndose uso de la sala, solamente para usos de comedor, finalizando el plazo de tres meses el 24/05/2024. Deberán entregarse en el Ayuntamiento todas las copias de las llaves que se hayan realizado.

II.- Contra el citado Acuerdo plenario se interpuso por el representante legal de "ORBEL HAIZEA, SLU" en tiempo y forma legal recurso de reposición del cual se dio traslado al asesor jurídico externo del Ayuntamiento a fin de que emitiera el correspondiente informe jurídico sobre dicho recurso de reposición.

Visto el informe jurídico emitido por Nagore abogados & asociados de 25 de



BEINTZA-LABAIEN

Código Seguro de Verificación: 7NAA AAFL NLEM 94EU TDDV

BILKURAKO AKTA/ACTA DEL PLENO 2024-04-19 - SEFYCU 57003

La comprobación de la autenticidad de este documento y otra información está disponible en <https://sedeelectronica.labaien.org/>

Pág. 2 de 22



FIRMADO POR

Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza-Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
04/04/2025



FIRMADO POR

El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
04/04/2025

txosten juridikoa ikusita, honako hau ondorioztatzen da:

marzo de 2024, se desprende:

AURREKARIAK

2010eko azaroaren 19ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez, Beintza-Labaiengo Udalak Udaletxeko bigarren solairuko aretoa prekarioan lagatzea erabaki zuen, "ORBEL HAIZEA, SLU" enpresak ustiatutako turismo-aterpetxearen ondoriozko jantoki osagarriaren beharrei erantzuteko, betiere horrekin udal-bulegoen ohiko funtzionamendua aldatzen ez bada, eta aretoaren erabilera adierazi ez den beste edozein helbururako erabiltzen bada, Udalarai aldeztu aurretik eskaera egin beharko zaio. Lagapenean berariaz xedatu zen:

- 1.- Ceder a precario el uso de la SALA municipal de cabida aproximada de 40,00m², así como el baño anexo, sitos en la planta segunda de la Casa consistorial, al adjudicatario del bar-restaurante y albergue turístico sito en las plantas primera y baja del mismo edificio, para atender las necesidades de comedor derivadas del albergue.*
- 2.- Hacerle saber al cesionario que deberá cesar en el uso de esta sala y baño dentro de los 3 meses siguientes en que así se lo haga saber el ayuntamiento de Beintza-Labaien.*
- 3.- Será obligación del cesionario el mantenimiento de esta Sala y baño anexo, durante el tiempo en que tenga el uso de la misma.*

Azken bi urteetan, gutxi gorabehera, salaketa batzuk jaso dira Udalean, gela prekarioan lagatzeko akordioan jasota ez zeuden beste jarduera eta erabilera batzuetarako erabili delako, eta ez dago jasota lagapen-hartzaileak aretoaren titularrak den Administrazioari nahitaezko baimen-eskaera

ANTECEDENTES

Mediante Acuerdo plenario de 19 de noviembre de 2010 el Ayuntamiento de Beintza-Labaien dispuso la cesión en precario de la sala de la segunda planta de la Casa Consistorial para atender las necesidades de comedor suplementario derivadas del albergue turístico explotado por "ORBEL HAIZEA, SLU", siempre que con ello no se alterase el normal funcionamiento de las dependencias municipales, y quedando el uso de la sala para cualquier otra finalidad distinta a la indicada sometida a la previa solicitud al Ayuntamiento. En la cesión se dispuso expresamente:

- 1.- Ceder a precario el uso de la SALA municipal de cabida aproximada de 40,00m², así como el baño anexo, sitos en la planta segunda de la Casa consistorial, al adjudicatario del bar-restaurante y albergue turístico sito en las plantas primera y baja del mismo edificio, para atender las necesidades de comedor derivadas del albergue.*
- 2.- Hacerle saber al cesionario que deberá cesar en el uso de esta sala y baño dentro de los 3 meses siguientes en que así se lo haga saber el ayuntamiento de Beintza-Labaien.*
- 3.- Será obligación del cesionario el mantenimiento de esta Sala y baño anexo, durante el tiempo en que tenga el uso de la misma.*

En los últimos dos años aproximadamente se han recibido en el Ayuntamiento denuncias sobre la utilización de la sala para otras actividades y usos distintos de los que venían contemplados en el acuerdo de cesión a precario, sin que conste la preceptiva solicitud



BEINTZA-LABAIEN

Código Seguro de Verificación: 7NAA AAFL NLEM 94EU TDDV

BILKURAKO AKTA/ACTA DEL PLENO 2024-04-19 - SEFYCU 57003

La comprobación de la autenticidad de este documento y otra información está disponible en <https://sedeelectronica.labaien.org/>

Pág. 3 de 22



FIRMADO POR

Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza
-Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
04/04/2025



FIRMADO POR

El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo
Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
04/04/2025

egin dionik. Beraz, lagapen-baldintzak behin eta berriz ez direla bete esan daiteke.

Udalbatzak 2023ko irailaren 4an hartutako erabakiaren bidez, Udalak erabaki zuen hasiera ematea sala eta bainugela prekarioan lagatzeko 2010eko azaroaren 19ko osoko bilkuraren erabakiari buruzko egintza deuseza berrikusteko prozedurari, eta egintza horretan bertan izapidea eman zitzaizen interesdunei, besteak beste, aretoaren lagapen-hartzaileari, alegazioak egiteko eta egoki iritzitako dokumentazioa aurkezteko, haien bidezko interesen defentsan.

Nafarroako Kontseiluari ofiziozko berrikuspen-prozedura bidali ondoren, kontsulta-organoak 2024/01/22ko irizpena eman zuen, eta, horren bitartez, Udalak eskatutako ofiziozko berrikuspenaren aurkako txostena eman zuen. Kontsulta-organoak bere irizpenean adierazi duenez, *prekarioko lagapena errebokatze*ko arrazoia *hasierako asmoa desbideratzea edo baldintzak ez betetzea bada, udal administrazioak ahalmena du prekarioko lagapena suntsituzat jotzeko, hargatik eragotzi gabe ezerk (...)* 7/1985 Legearen 82. artikulua (...) *eta amaituzat jotzea aterpetxearen errentariari udaletxeko bigarren solairuko aretoaren prekarioko lagapena edo baimena.*

2024ko otsailaren 23ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez, Udalak *udal-aretoaren eta erantsitako bainugelaren lagapena ezeztatzea* onartu zuen, *lagapen-baldintzak behin eta berriz ez betetzeagatik*, eta, gainera, *jakinarazi zuen aretoa erabiltzen jarraitu ahal izango zela, jantoki-erabileretarako soilik, eta hiru hilabeteko epea 2024ko maiatzaren 24an amaituko zela.* Une horretan, egindako giltza guztien kopiaak entregatu beharko zituen Udalean.

Erabaki horren aurka berraztertze

errekurtsoa aurkeztu du "ORBEL HAIZEA,

de autorización por el cesionario a la Administración titular de la sala, en lo que bien podría considerarse un incumplimiento repetido de las condiciones de la cesión.

Por Acuerdo plenario de 4 de septiembre de 2023 el Ayuntamiento dispuso iniciar el procedimiento de revisión de acto nulo referido al Acuerdo plenario de cesión en precario de la sala y baño de 19 de noviembre de 2010, concediendo en el mismo acto trámite a los interesados, entre ellos el cesionario de la sala, para formular alegaciones y aportar la documentación que estimasen oportuna en defensa de sus legítimos intereses.

Remitido el procedimiento de revisión de oficio al Consejo de Navarra, el órgano consultivo emitió Dictamen de 22/01/2024 por el cual informa desfavorablemente la revisión de oficio instada por el Ayuntamiento. En su dictamen el órgano consultivo señala que *si el motivo de la revocación de la cesión a precario es la desviación del propósito inicial o incumplimiento de las condiciones, la Administración municipal tiene facultades para declarar resuelta la cesión a precario, sin perjuicio de que nada le impide (...) aplicar la medida prevista en el art. 82 de la Ley 7/1985 (...) y declarar resuelta la cesión o autorización a precario de la sala de la segunda planta del Consistorio al arrendatario del albergue.*

Por Acuerdo plenario de 23 de febrero de 2024 el Ayuntamiento aprueba *revocar la cesión de la sala municipal así como del baño anexo, por incumplimientos repetidos de las condiciones de la cesión, y además notificar que podrá seguir haciéndose uso de la sala, solamente para usos de comedor, finalizando el plazo de tres meses el 24/05/2024,* debiendo en ese instante hacer entrega en el Ayuntamiento de todas las copias de las llaves que se hayan realizado.

Contra dicho Acuerdo se ha interpuesto recurso de reposición por el representante legal



BEINTZA-LABAIEN

Código Seguro de Verificación: 7NAA AAFL NLEM 94EU TDDV

BILKURAKO AKTA/ACTA DEL PLENO 2024-04-19 - SEFYCU 57003

La comprobación de la autenticidad de este documento y otra información está disponible en <https://sedeelectronica.labaien.org/>

Pág. 4 de 22



FIRMADO POR

Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza
-Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
04/04/2025



FIRMADO POR

El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo
Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
04/04/2025

SLU" enpresaren legezko ordezkariak.

GOGOETA JURIDIKOAK

LEHENENGOA.- Prozedura erabat urratzea eta erabateko deuseztasuna, defentsa-gabezia larriarekin, entzunaldi-izapidea ez egiteagatik.

Errekurtsogileak baieztatzen du aurkaratutako osoko bilkuraren erabakiak 39/2015 Legearen 47.1.a) eta e) letrak, entzunaldiaren funtsezko izapidea ez betetzeagatik, eta, horregatik, komeni da haren deuseztasuna deklaratzeko eta jarduketak atzera eramatea hartu aurreko unera, osoko bilkuraren beste erabaki bat eman dadin, zeinaren bidez entzunaldi-epa emango baita interesdunari laguntzen dioten gela eta komuna prekarioan lagatzeari amaiera eman nahi dion prozeduran defentsa-jarduketa guztiak egiteko.

Bada, udalak, txosten honen aurrekarietan erreparatu eta orain aurkaratu den erabakia jasotzen zuen bezala, guztiz bermatzailea izan nahi izan zuen, 2010eko azaroaren 19ko Erabakiaren ofiziozko berrikuspenera joz, zeinaren bidez xedatu baitzen udaletxeko bigarren solairuan kokatutako gela eta komuna prekarioan lagatzea aterpetxearen errentariari, aterpetxearen ordezkari jantoki gisa erabil zezan, eta prozedura horretan "ORBEL HAIZEA, SLU" enpresaren ordezkariak alegazio guztiak egin eta bere interes legitimoen defentsan egoki irizitako froga guztiak aurkeztu zituen arren, egia da Udalak interesdunari prozesuko berme handienak eman nahi dizkiola oraindik, eta ez du eragozpenik lehen arrazoi horrengatik **berraztertze errekurtsioa baiesteko** eta errekurtsogileak adierazitako zentzuan bere uztia onartzeko, hau da, **jarduketak hartu aurreko unera atzera eramanda.**

de "ORBEL HAIZEA, SLU".

CONSIDERACIONES JURÍDICAS

PRIMERA.- Infracción del procedimiento con nulidad de pleno derecho con causación de grave indefensión por haberse omitido el trámite de audiencia.

Se afirma por el recurrente que el Acuerdo plenario impugnado incurre en vicio de nulidad radical del art. 47.1.a) y e) Ley 39/2015, por haber omitido el trámite esencial de audiencia, y por tal motivo interesa la declaración de su nulidad y la retroacción de las actuaciones al momento anterior a su adopción para que se emita nuevo Acuerdo plenario por el que se otorgue plazo de audiencia para la realización de todas las actuaciones de defensa en el procedimiento que pretenda poner fin a la cesión en precario de la sala y baño que asisten al interesado.

Pues bien, aunque el Ayuntamiento, según hemos repasado en los Antecedentes de este informe, y recogía el Acuerdo ahora impugnado, pretendió ser extremadamente garantista acudiendo al cauce de la revisión de oficio del Acuerdo de 19 de noviembre de 2010 por el que se dispuso la cesión en precario de la sala y baño anexo sitios en planta segunda de la Casa Consistorial al arrendatario del albergue para su uso como comedor supletorio del albergue, y en dicho procedimiento el representante de "ORBEL HAIZEA, SLU" formuló cuantas alegaciones y aportó cuantas pruebas consideró pertinentes en defensa de sus intereses legítimos, lo cierto es que el Ayuntamiento sigue queriendo otorgar al interesado las máximas garantías procesales y no tiene inconveniente en **estimar el recurso de reposición por este primer motivo** y acceder a su pretensión en el sentido apuntado por el recurrente, esto es, **retrotrayendo las actuaciones al momento anterior a su adopción** para que se emita nuevo Acuerdo plenario por el que se otorgue plazo de audiencia para la realización de todas las actuaciones de defensa en el procedimiento



BEINTZA-LABAIEN

Código Seguro de Verificación: 7NAA AAFL NLEM 94EU TDDV

BILKURAKO AKTA/ACTA DEL PLENO 2024-04-19 - SEFYCU 57003

La comprobación de la autenticidad de este documento y otra información está disponible en <https://sedeelectronica.labaien.org/>

Pág. 5 de 22



FIRMADO POR

Beintza-Labaien Idazkaria/La Secretaria de Beintza
-Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
04/04/2025



FIRMADO POR

El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaien
Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
04/04/2025

BIGARRENA.- Interes publikoa ez arrazoitzea eta ez justifikatzea.

Nahiz eta aurreko kontsiderazioan aurreratutako berrazterte-errekurtsioa baiesteko borondatea eta erabakia nahikoa izango litzatekeen aurkaratutako erabakia baliogabetzeko eta beste erabaki bat hartzeko, egitea aurreikusita dagoen bezala, txosten juridiko hau aprobetxatu da errekurtsogileak argudiatutako bigarren aurkaratze-arrazoia aztertzeko eta hari erantzuteko.

Errekurtsogileak adierazi duenez, egiaztatuta geratu da, bai Nafarroako Kontseiluak Udalak erabilitako ofiziozko berrikuspenaren bidea ezetsi izanaren harira emandako irizpenean, bai errekurtsogileak berak bideratutako prozedura hartan egindako alegazioetan, prekarioko lagapen bat ebatzitzat jo daitekeela, nahiz eta hura emateko unean ezarritako baldintzak bete ez, *betiere ebazpen hori interes publikoaren eskakizunen ondorio dela justifikatzen bada*. Hori dela eta, bidezkotzat jotzen da **Osoko Bilkuraren erabaki berrian, aretoaren eta erantsitako bainuaren prekarioko lagapenari amaiera emateko prozedurari hasiera emateko hartu beharreko erabaki berrian (interesdunari entzuteko izapidea eginez), ebaztea erabaki den interes publikoko arrazoiak eta eskakizunak jasotzea eta prekarioko lagapenari amaiera ematea**, hargatik eragotzi gabe aztertzea eta aintzat hartzea lagapenari amaiera emateko erabakia ere justifikatzen duten lagapen-baldintzen ez-betetzeak egiaztatu diren ala ez.

HIRUGARRENA.- Funtzionario eta agintari eskudunen erantzukizuna.

Kontuan hartuta errekurtsogileak alkate-udalburuari eta udal-idazkariari egozten dizkiela *administrazio-espediterearen instrukzioa egiteko, izapidea bultzatzeko eta*

que asisten al interesado.

SEGUNDA.- Ausencia de motivación y justificación del interés público.

Aunque la voluntad y decisión de estimar el recurso de reposición adelantada en la consideración anterior sería suficiente para revocar el Acuerdo impugnado y dar paso a la adopción de un nuevo Acuerdo, tal y como está previsto hacer, se aprovecha la emisión de este informe jurídico para analizar y responder al segundo motivo de impugnación invocado por el recurrente.

Señala el recurrente que habiendo quedado constatado, tanto por el Dictamen del Consejo de Navarra emitido con ocasión de la desestimación del cauce de la revisión de oficio utilizado por el Ayuntamiento, como por alegaciones en aquel procedimiento evacuadas por el propio recurrente, en el sentido de que una cesión en precario puede declararse resuelta, incluso aunque no se hubieran incumplido las condiciones impuestas al tiempo de otorgarla, *siempre que se justifique que dicha resolución obedece a exigencias del interés público*, se considera procedente que en el nuevo Acuerdo plenario a adoptar para dar inicio al procedimiento para poner fin a la cesión en precario de la sala y baño anexo, con trámite de audiencia al interesado, se recojan los motivos y exigencias de interés público por las que se ha decidido resolver y poner fin a la cesión en precario, sin perjuicio de analizar y considerar si además de ello se han constatado incumplimientos de las condiciones de la cesión que igualmente justifiquen la decisión de poner fin a la misma.

TERCERA.- Responsabilidad de funcionario y autoridad competentes.

Habida cuenta de que el recurrente imputa al Alcalde-Presidente y a la Secretaria municipal un *claro incumplimiento de las funciones de quien tiene las competencias precisamente*



BEINTZA-LABAIEN

Código Seguro de Verificación: 7NAA AAFL NLEM 94EU TDDV

BILKURAKO AKTA/ACTA DEL PLENO 2024-04-19 - SEFYCU 57003

La comprobación de la autenticidad de este documento y otra información está disponible en <https://sedeelectronica.labaien.org/>

Pág. 6 de 22



FIRMADO POR

Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza
-Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
04/04/2025



FIRMADO POR

El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo
Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
04/04/2025

dokumentuak egiteko eskumenak dituenaren eginkizunak, bai eta osoko bilkuretarako deia egiteko eta horietan buru izateko eskumena duenarenak ere, aurkaratutako 2024ko otsailaren 23ko osoko bilkuraren erabakia hartu den moduari dagokionez, eta erabaki hori, hemen aztertutako berraztertze errekurtsoa baiesten duena, baliogabetu egingo dela, ez da beharrezkoa aurkaratzeko arrazoi horri erantzutea. Izan ere, ulertu behar da errekurtsogileak alkatetzari eta idazkaritzari egozten dizkien ez-betetzeetako bat ere ez dela egintzat jotzen, eta prozedura-berme handienak bermatzeko soilik onartuko dela berraztertze-errekurtsoa, aurkaratutako egintza baliogabetu egingo da, eta jarduketak erabakia hartu aurreko unera atzeratuko dira, osoko bilkuraren bidez beste erabaki bat eman dadin.

para instruir, impulsar el trámite y elaborar los documentos del expediente administrativo, así como de quien tiene la competencia de convocar y presidir las sesiones plenarias en relación a la forma en que se ha adoptado el Acuerdo plenario de 23 de febrero de 2024 impugnado, y que dicho Acuerdo, con estimación del recurso de reposición aquí analizado va a resultar anulado, no es preciso entrar a responder a este motivo de impugnación, bien entendido que ninguno de los incumplimientos que se imputan por el recurrente a Alcaldía y Secretaría se consideran cometidos, y que solo por razón de asegurar las máximas garantías procedimentales se va a estimar el recurso de reposición, se va a anular el acto impugnado, y van a retrotraerse las actuaciones al momento anterior a su adopción para que se emita nuevo Acuerdo plenario por el que se otorgue plazo de audiencia para la realización de todas las actuaciones de defensa en el procedimiento que asisten al interesado.

LAUGARRENA.- Aurkaratutako erabakiaren betearazpena eteteari buruz.

Errekurtsogileak hemen berraztertze errekurtsoa jarri zaion erabakiaren betearazpena eteteko eskatu du, nahiz eta jakin ez dagoela etete-ondorioz edozein administrazio-errekurtso jartzean, eta berraztertze errekurtsoa ez dela salbuespena.

Aztergai dugun kasuan, berraztertze errekurtsoa baiestea eta, ondorioz, aurkaratutako erabakia baliogabetzea erabakienez, ez da beharrezkoa etete-eskaera onartzea edo ukatzea. Izan ere, errekurtutako egintza errebokatzean, berehalako ondorioa da erantsitako gela eta bainugelaren lagapenak erabateko ondorioak dituela lagapen hori xedatu zuen 2010eko azaroaren 19ko Erabakian jasotako baldintza eta murrizketa berberetan.

CUARTA.- Sobre la suspensión de la ejecutividad del acuerdo impugnado.

El recurrente interesa la suspensión de la ejecutividad del Acuerdo aquí recurrido en reposición, por más que es consciente de que no hay efecto suspensivo en la interposición de cualquier recurso administrativo, y el de reposición no es una excepción.

En el caso que nos ocupa dado que se ha optado por la estimación del recurso de reposición y consiguiente anulación del acuerdo impugnado, no es preciso acceder ni denegar la solicitud de suspensión, lisa y llanamente porque al revocarse el acto recurrido el efecto inmediato es que la cesión de la sala y baño anexo despliega plenos efectos en las mismas condiciones y con las mismas restricciones que las que se recogieron en el Acuerdo de 19 de noviembre de 2010 por el que se dispuso dicha cesión.



BEINTZA-LABAIEN

Código Seguro de Verificación: 7NAA AAFL NLEM 94EU TDDV

BILKURAKO AKTA/ACTA DEL PLENO 2024-04-19 - SEFYCU 57003

La comprobación de la autenticidad de este documento y otra información está disponible en <https://sedeelectronica.labaien.org/>

Pág. 7 de 22



FIRMADO POR

Beintza-Labaien Idazkaria/La Secretaria de Beintza-Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
04/04/2025



FIRMADO POR

El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaien Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
04/04/2025

ONDORIOA

Egokia da "ORBEL HAIZEA, SLU" enpresak 2024ko otsailaren 23ko osoko bilkuraren erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa izapidetzea. Erabaki horren bidez, *udal-aretoaren eta erantsitako komunaren lagapena errebokatzea xedatu zen, lagapenaren baldintzak behin eta berriz ez betetzeagatik, eta jakinarazi zen aretoa erabiltzen jarraitu ahal izango zuela, jantoki-erabileretarako soilik, eta hiru hilabeteko epea 2024-05-24an amaitu zen. Une horretan, egindako giltzen kopia guztiak entregatu behar zaizkio udalari, eta baietsi egin behar da, lehenengo kontsiderazio juridikoan jasotako arrazoiengatik, eta aurkaratutako erabakia baliogabetu eta ondoriorik gabe utzi behar da.*

Berraztertze errekurtsoa baiesten duen eta aurkaratutako egintza deuseztatzen duen erabaki berean xedatuko da **jarduketak erabakia hartu aurreko unera atzera eraman behar direla**, eta osoko bilkuraren beste erabaki bat hartuko da, udal-aretoaren lagapena eta erantsitako bainua errebokatzeko espedienteari hasiera ematea dekretatuko duena, hura justifikatzen duten arrazoiak adierazita (ez-betetzeak eta interes publikoko eskakizunak), eta entzunaldi-epea emango da interesdunak prozeduran dituen defentsa-jarduketa guztiak egiteko.

III.- Ikusi da udaletxeko bigarren solairuko gela eta komuna prekarioan lagatzeko ezarritako baldintzak eta eskakizunak ez direla bete, Beintzako aterpetxeko errentariak berariaz onartu duen bezala. Izan ere, aretoa udalaren alde aurreko baimenik gabe beste xede batzuetarako erabili zen, lagapena eragin eta justifikatu zuenaz gain. Erabaki honen eranskina erantsi da. Bertan, aretoa aterpetxeko jantoki osagarriarekin bat ez datozen helburuetarako erabili dela egiaztatzen

CONCLUSIÓN

Procede admitir a trámite el recurso de reposición interpuesto por "ORBEL HAIZEA, SLU" contra Acuerdo plenario de 23 de febrero de 2024 por el que se dispone *revocar la cesión de la sala municipal, así como del baño anexo, por incumplimientos repetidos de las condiciones de la cesión así como notificar que podrá seguir haciendo uso de la sala, solamente para usos de comedor, finalizando el plazo de tres meses el 24/05/2024, debiendo entregar en ese momento al Ayuntamiento todas las copias de las llaves que se hayan realizado*, el cual debe ser **estimado** por las razones que han quedado recogidas en la Consideración jurídica Primera, anulando el Acuerdo impugnado y dejándolo sin efecto alguno.

En el mismo Acuerdo por el que se estime el recurso de reposición y se anule el acto impugnado se dispondrá la **retroacción de las actuaciones al momento anterior a su adopción** y se adoptará nuevo Acuerdo plenario por el que se decrete la incoación de expediente para la revocación de la cesión de la sala municipal y baño anexo con indicación de los motivos que la justifican (incumplimientos y exigencias de interés público) y se otorgará plazo de audiencia para la realización de todas las actuaciones de defensa en el procedimiento que asisten al interesado.

III.- Se han constatado numerosos incumplimientos de las condiciones y exigencias establecidas en la cesión en precario de la sala y baño anexo de la segunda planta de la Casa Consistorial como ha reconocido expresamente el arrendatario del albergue de Beintza, destinando la sala sin autorización previa del Ayuntamiento a otros fines ajenos al que motivó y justificó la cesión. Se aporta Anexo a este Acuerdo en el que se recogen al menos siete evidencias que



BEINTZA-LABAIEN

Código Seguro de Verificación: 7NAA AAFL NLEM 94EU TDDV

BILKURAKO AKTA/ACTA DEL PLENO 2024-04-19 - SEFYCU 57003

La comprobación de la autenticidad de este documento y otra información está disponible en <https://sedeelectronica.labaien.org/>

Pág. 8 de 22



FIRMADO POR

Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza
-Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
04/04/2025



FIRMADO POR

El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo
Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
04/04/2025

duten zazpi ebidentzia jasotzen dira gutxienez, betiere errentariak ez badu udalaren aurretiazko baimenik eskatu edo lortu.

Are gehiago, Udalak txostena eskatu dio Nafarroako Gobernuko Turismo Departamentuko Antolamendu, Kalitate eta Azpiegituren Atalari, jakiteko ea jantoki osagarri gisa erabiltzeko aretoa kentzeak aterpetxearen egungo ostatu-edukiera aldatzea ekar lezakeen, eta jakin izan da aipatu aretoa eduki ezean aterpetxeko egungo plaza-kopurua ez litzatekeela kaltetuko, ezta murriztuko ere, aterpetxearen errentariak hainbat forotan adierazi duen bezala, aretoa prekarioan laga diezaiotela aldarrikatzeko.

IV.- Bestalde, Udalak egiaztatu du berreskuratu egin behar dela Beintzako aterpetxeari lotutako jantoki osagarri gisa 2010ean prekarioan lagatzea erabaki zen aretoaren jabetza osoa eta askatasuna, hainbat barne-antolaketa arrazoi direla medio. Garrantzi berezia du udal-artxiboa aldatzeko eta handitzeko beharrak, udal-artxiboek errespetatu behar dituzten segurtasun-eta kontserbazio-neurriak betetzeko. Horrez gain, Udaleko langileen lan-eremua handitu behar da, etorkizunean langile gehiago egongo diren kasuetarako, gaur egun Donamaria, Oiz eta Urrozko Udalekin izandako elkarrizketen bidez baloratzen ari direnak. Helburu horiek bateraezinak dira aterpetxearen errentariak orain arte izan duen sarbidearekin eta eskatutako jantoki-erabilerarekin.

acreditan esa utilización de la sala para fines que no se corresponden con el de comedor suplementario del albergue y para los que el arrendatario no ha solicitado ni obtenido la correspondiente autorización previa del Ayuntamiento.

A mayor abundamiento el Ayuntamiento ha solicitado informe a la Sección de Ordenación, Calidad e Infraestructuras del Departamento de Turismo del Gobierno de Navarra para conocer si la retirada de la disponibilidad de la sala para ser utilizada como comedor suplementario podía suponer la modificación de la capacidad actual de alojamiento del albergue, y se ha tenido conocimiento de que en caso de no poder disponer de la citada sala el número de plazas actuales del albergue no se vería afectada ni reducida, como ha sostenido el arrendatario del albergue en diversos foros para reivindicar que se le mantenga la cesión en precario de la sala.

IV.- Por otra parte el Ayuntamiento ha constatado que precisa recuperar la plena y libre posesión y disposición de la sala cuya cesión en precario para comedor suplementario vinculada al albergue de Beintza se acordó en 2010 por diversos motivos de organización interna, teniendo especial importancia la necesidad de modificar y ampliar el archivo municipal para dar cumplimiento a las medidas de seguridad y conservación que deben respetar los archivos municipales y la necesidad de ampliar el área de trabajo del personal del Ayuntamiento para casos de futuras ampliaciones de personal que se están valorando actualmente mediante conversaciones con los Ayuntamientos de Donamaria, Oiz y Urroz. Estos objetivos son incompatibles con el acceso que ha venido teniendo el arrendatario del albergue y con el uso de comedor solicitado.



BEINTZA-LABAIEN

Código Seguro de Verificación: 7NAA AAFL NLEM 94EU TDDV

BILKURAKO AKTA/ACTA DEL PLENO 2024-04-19 - SEFYCU 57003

La comprobación de la autenticidad de este documento y otra información está disponible en <https://sedeelectronica.labaien.org/>



FIRMADO POR

Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza
-Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
04/04/2025



FIRMADO POR

El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo
Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
04/04/2025

Gehiengo osoz, honako hau ONARTU DA: Por mayoría absoluta, SE APRUEBA:

1.- "ORBEL HAIZEA, SLU" enpresak 2024ko otsailaren 23ko osoko bilkuraren erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa izapidetzea. Erabaki horren bidez, udal-aretoaren eta erantsitako komunaren lagapena errebokatzea xedatu zen, lagapenaren baldintzak behin eta berriz ez betetzeagatik, eta jakinarazi zen aretoa erabiltzen jarraitu ahal izango zuela, jantoki-erabileretarako soilik, eta hiru hilabeteko epea 2024ko maiatzaren 24an amaitu zen. Une horretan, egindako giltzen kopia guztiak entregatu beharko zaizkio udalari, eta **baietsi** egin behar da, erabaki honetan osorik eta hitzez hitz transkribatutako txosten juridikoan jasotako arrazoiengatik. Horrenbestez, **aurkaratutako erabakia balio gabetu eta ondoriorik gabe utzi behar da.**

2.- Kontraesaneko prozedura hastea erabaki honen III. puntuaren (behin eta berriz egiaztatu da lagapenaren baldintzak eta betekizunak betetzen ez direla, eta espazio hori ez dela beharrezkoa aterpetxearen egungo plaza-kopuruari eusteko) eta IV. puntuaren (behar bezala egiaztatutako interes publikoko eskakizunak direla-eta, Udalak zehaztu behar du aretoa libre eta osorik eduki eta erabili behar dela) jasotako arrazoiak direla-eta, Beintzako aterpetxearen errentariari 2010/11/19an adostutako udaletxearen bigarren solairuko gela eta komun atxikia prekarioran Beintzako aterpetxearen errentariari lagatzeko erabakia balio gabetzeko. **Erabaki honen berri "ORBEL HAIZEA, SLU" enpresari ematea, eta hamar egun balioduneko epea ematea** hasitako prozedurari lotuta egokitzen jotzen dituen alegazioak,

1.- Admitir a trámite el recurso de reposición interpuesto por "ORBEL HAIZEA, SLU" contra Acuerdo plenario de 23 de febrero de 2024 por el que se dispone *revocar la cesión de la sala municipal, así como del baño anexo, por incumplimientos repetidos de las condiciones de la cesión* así como *notificar que podrá seguir haciendo uso de la sala, solamente para usos de comedor, finalizando el plazo de tres meses el 24/05/2024, debiendo entregar en ese momento al Ayuntamiento todas las copias de las llaves que se hayan realizado*, el cual debe ser **estimado** por las razones que han quedado recogidas en el informe jurídico que se ha transcrito íntegra y literalmente en el presente Acuerdo, **anulando el Acuerdo impugnado y dejándolo sin efecto alguno.**

2.- Incoar procedimiento contradictorio para revocación de la cesión en precario de la sala y baño anexo en planta segunda de la Casa Consistorial acordada el 19/11/2010 a favor del arrendatario del albergue de Beintza por las razones recogidas en los puntos III (repetidos incumplimientos constatados de las condiciones y requisitos de la cesión, e innecesariedad de ese espacio para conservar el número de plazas actual del albergue) y IV (precisar el Ayuntamiento la libre y plena posesión y disposición de la sala por exigencias de interés público debidamente contrastadas) de este Acuerdo, **dando traslado** del mismo a "ORBEL HAIZEA, SLU" **concediéndole plazo de diez días hábiles** para alegar y presentar los documentos y justificantes que estime oportunos en relación con el procedimiento incoado.



BEINTZA-LABAIEN

Código Seguro de Verificación: 7NAA AAFL NLEM 94EU TDDV

BILKURAKO AKTA/ACTA DEL PLENO 2024-04-19 - SEFYCU 57003

La comprobación de la autenticidad de este documento y otra información está disponible en <https://sedeelectronica.labaien.org/>

Pág. 10 de 22



FIRMADO POR

Beintza-Labaiengo Idazkaria/La Secretaria de Beintza
-Labaien
LEIRE IRAGORRI LITAGO
04/04/2025



FIRMADO POR

El Alcalde de Beintza-Labaien/Beintza-Labaiengo
Alkatea
JON TELLETXEA JUANENEA
04/04/2025

dokumentuak eta egiaztagiriak aurkezteko.

3.- Erabaki hau "ORBEL HAIZEA, SLU" enpresari jakinaraztea, jakinaren ganean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan. Halaber, jakinaraziko zaio erabaki hau izapide-egintza bat denez eta horren bidez alegazioak aurkezteko epe bat ematen duenez, izapide-egintzatzat hartuko dela eta ezin dela errekurtsorik jarri haren aurka.

2.- AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI BURUZKO ERABAKIA ETA JABARI ETA ERABILERA PUBLIKOKO ESPAZIOEN OKUPAZIOA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.

Jabari eta erabilera publikoko espazioen okupazioa arautzen duen udal-ordenantza behin betiko onartzeko espedientea izapidetu da.

Jendaurrean jartzeko izapidea bete da, eta aurkeztutako alegazioei buruzko txosten juridikoak ikusi dira. Horien kopia bat erantsi zaio osoko bilkuraren erabaki honi.

